

Bi urteko umea hil dute Erandion aitaren autoan jarritako bonbaz

Anaia bikiak eta aitak —goardia zibila— zauriak izan zituzten atentatuan

Bi urteko haurra hil zuen atzo Erandion (Bizkaia) aita goardia zibilaren autoaren barruan ipinitako lehergailuaren eztandak, arratsaldeko bostak pasatuxe zirenean. Atentatuan bere anaia bizkiak eta aitak zauri arinak izan zituzten.

BILBO

Zauritutako umea eta aita Gurutzetako ospitalera eroan zituzten, baina artikulu hau idazteko unean ospitaleak oraindik ez zeukan kalertua osasun egoerari buruzko agiririk.

Leherketa Erandioko Tartanga kalean izan zen. Aita bi semeekin zihoan, Getxon zegoen eskolatik etxerako bidean, BI-6383-AH matrikulako 'Peugot 505' autoan.

Familia bizi den Tartanga auzorantz abiatzeko, Julian Goioaga kalerantz buelta egiterakoan, autoaren azpikaldean ipinita zegoen lehergailuak eztanda egin zuen eta Fabio Moreno Asla umearen heriotza eragin zuen unean bertan.

Lekuko arabera, Antonio Moreno Chica goardia zibilak irten zuen autotik, hanketan odola zeukala. Birtartean, inguruan zegoen emakume batek Alexander umea atera zuen autotik.

Gobernu Zibilaren arabera, lehergailua gidariaren ondoko eserleku azpian ipinita zegoen, autoaren barruan, eta autoaren eskuineko atea



Lehergailua gidariaren ondoko eserleku azpian zegoen ipinita.

JOSE SIMAL

indarrez zabaldu zutela hori egiteko.

Oraindik erabat zehaztuta ez badago ere, lehergailua bi kilo amosal edo amonalez osatuta zegoela pentsatzen da.

Eztandak sua eragin zuen autoan, eta inguruko tailer bateko langile batek itzali zuen estintore batekin. Eztandaren ondorioz autoa lau bat metro mugitu zen, sabaiak gora egin zuen eta atzeko kristala hautsi zen.

Antonio Morenok 31 urte ditu eta Bilboko Komandantzia egiten du lan, armak biltzen. Bikiak 1989ko ekainaren 26an jaio ziren, baina senar-emazteek beste seme bat ere badute, bederatzia urtetakoa.

Lekuko arabera, leherketa izan ostean bi umeetako bat auto barruan geratu zen, aitak hildakoa esku artean zuela. Umea oso gaizki ikusten zen arren, aitari ez zitzaion ezer na-

baritu, beti ere lekuko horien arabera.

«Ertzaintzari eta anbulantziari deitu diegu —segitu zuten aipatutako lekukoek—, eta Ertzaintza segituan etorri da, baina anbulantziak denbora piloa eman du». Arratsaldeko zortziak baino lehenxeago hildako haurraren gorpuak lurtean segitzen zuten, altxatzeko baimena eman goren goardiako epailearen zain.

EAJ: «ETAren ustezko iraultzak haur eta errugabeak hiltzea du oinarri»

BILBO

EAJko Bizkai Buru Batzarrak gogor gaitzetsi zuen atzoko atentatua, eta ziurtatu zuen «ETAren ustezko iraultza ume errugabeak hiltzean» oinarritzen dela. EBBk «min eta gaitzespina» erakutsi zuen, «beste bizitza bat galdu den unean».

Heriotz hau «ETAk ustezko iraultzaz betetzen diharduen biktima errugabeen zerrenda luzeari erantsi behar zaio, Euzkadiren historian orrialde tristea betetzeko», ziurtatu zuen Alderdi Jeltzaleak atzo igorritako ohar baten bidez.

BBBk erantsi zuen «terrorearen eta odolaren fanatiko hauek bakarrik hiltzen eta beren 'gurutzada armatuarekin' zerikusirik ez duten familietan etsipena» dakitela.

Azkenik, ETA «irteerarik gabeko zuloan» dagoela ziurtatu ondoren, euskal hiritarrei «arbuio argia» erakusteko eskatu zieten, «basakeriari amaiera ahalik eta lasterren emateko».

Ramon Jauregi PSE-PSOEk

✓ EA: «Gaurkoa bezalako gertakizunek egi-leen zentzugabekeria eta salatzen ez dituztenena erakusten dute».

✓ PSE-PSOE: «HBri emandako botoek basakeria hau babesteko balio dute».

idazkariak ere atentatua gaitzetsi zuen. Jauregiren esanetan, «HBko botoak basakeria hau babesteko balio dute».

«Gaur inoiz baino gehiago galdetu behar da ea zer pentsatuko duten HBri botoa ematen diotenenek, ikusita beren botoek honetarako balio dutela», esan zuen Jauregik, ondoren eransteko: «Zer esango dute HBtik atentatu hori dela eta, nori botako

diote errua eta zein argudio berri erabiliko dute basakeria hau justifikatzeko».

PSE-PSOEn izenean familiari eta Goardia Zibilari doluminak eman eta gero, Jauregik atentatugileak lehenbailehen atxilotzeko gogoia erakutsi zuen. «Hau posible egiteko —azaldu zuen— beharrezkoa izango da hiritar guztiak Poliziari eta Ertzaintzari laguntza ematea. Gogora dezagun, neurri handi batean, laguntza horrek posible egin duela azken hilabeteotan komando terroristak deusezte».

EAK, bere aldetik, «gaitzespene gogorra» erakutsi eta elkartasuna adierazi zien biktima guztiei. Atzo igorritako oharrean alderdiak salatu zuenez, «ekintza bortxatik batek zentzunik ez badu ere, Erandion jatzakoa bezalako gertakizunek, krudelkeria bereziaz, era tristez erakusten dute ekintza horiek egiten dituztenen zentzugabekeria eta giza-gabekeria, eta baita egileak gaitzetsi ez eta ia goraitpatzen dituztenena ere».

HB: «Salaketa hipokritak egiteko mina erabiltzea ez dugu onartuko»

BILBO

Herri Batasunak Fabio Moreno umearen heriotzagatik «erabat minduta» zegoela adierazi zuen atzo igorritako ohar baten bidez. «Uste dugu gertakizun honek eragindako mina euskal gizarte osora zabaldu dela, eta gu bertako parte gara. Beraz, ez dugu onartuko, salaketa hipokritak egiteko min hori erabiltzerik Herri honen sufrimenduaren erantzule direnen aldetik», esan zuen oharrean. Ildo beretik, HBk, «bereziki atentatuaren ostean sortu den egoeran», botere publikoei eskatu die «elkarrizketa eta negoziazioaren aldeko aldeko jarrera har dezaten».

HB ziur azaldu zen, jokabide politiko honek «erantzun positiboa eta erabakiorra» izango duela esatean «bai gure erakundetik eta bai ETA erakunde armatutik bertatik ere».

«Oihu Isila» elkarteak bere aldetik, salatu zuen «basakeria hau ume baten gainean erori» dela eta «amorrua, higuina eta neurri batean, ezintasuna» sentitzen zuela adierazi zuen.

Hiru lege onartuko ditu gaur Gasteizko Legebiltzarrak

GASTEIZ

Gasteizko Legebiltzarrak aurreko gobernu hirukoitzak idatzi zituen hiruko lege onartuko ditu gaur osoko bilkuran. Lege hauek EAJ-EA-EE gobernu hirukoitzak agintean egon zen zazpi hilabeteetan idatzi eta Legebiltzarrera eramantzen zituen hirurak dira.

Hiru lege hauek honakoak dira: joko arautzen duena, aurrezki kutxeei dagokiena eta errepide egitasmo orokorra aldatzen duena. Kasu guztietan PSE-PSOE alde izango da. EAK errepidei buruzkoari emendakinak aurkeztu dizkio, PP ez dago ados jokoaren legearekin eta EA eta UAK aurrezki kutxeenari emendakinak aurkeztu dizkiote.

Lehen onartuko den legea euskal errepideen egitasmoa arautzen duen legea izango da. Horren bidez, dekretuz aldatzeko teknikoak egiteko ahalmena ematen zaio Gobernuari.

Jokoaren legeri dagokionez, B motako txanpon makinaren kopurua murrizten du ostalaritzan, eta bi urteko epean bakar bat baino izatea arautu. Batzordean PP alderdia abstentitu egin zen.

Aurrezki kutxen legeak kutxen gobernu organoen osaketa arautzen du. Proiektuaren arabera, entitate fundatzaileek bikoiztuko dute presentzia euskal aurrezki kutxen batzarretan.

Sebastian Labaien Alliren gabinetako buru izendatu dute

IRUNEA

Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakariak bere gabineteko buru Ildefonso Sebastian Labaien izendatu du. Zuzendari nagusi kargua izango du iruñear honek, atzo Gobernuko iturrietatik jakitera eman zenez. Zuzendariaren lizentzia-tua da Ildefonso Sebastian eta Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridikoa. Alli, UPNkoa, ez da lehendakari kargua hartu zuenetik orain arte horrelako gabinetarik sortzearen aldeko agertu, baina atzo jakin zenez berak aukeratu du zuzendari izango den Sebastian Labaien.

Iaz lortu zuen Ildefonso Sebastianek oposizio bidez plaza Nafarroako Gobernuan eta Lehendakariaren Sailaren menpe dagoen Aholkularitza Juridiko Zerbitzuan egin du lan. Ikasle zela 'Nafarroako Kultur Promozioa' elkartearen kide izan zen, eta lehendakari-tzaordea lortu zuen. Bertako kide izan zen baita ere Jose Iribas senadore izana eta egun Lizarrako alkate dena. Iruñean jaioa da 1962an.